

ttipi-ttapa

1990eko Urriak 25

48. zenbakia

dohain banatzen da



Lekarozko instituttoa:
Arazoak? Ugariak!

FRANTXISKAREN SASKIA

LEHIAKETA

Hamabostaldi honetako sariak



Merkaderes 9, **DONEZTEBE**
Kotoizko jertse bat




JATETXEA

LA VILLA

Tfnoa: 63 72 90 - **IGANTZI**
Afari bat bi lagunentzat



EZKALO

Intzakardi 8, Tfnoa: 45 00 54 **DONEZTEBE**
Baseri batentzako arrisku-guzitarako ase-
guroa urte batetarako  **La Estrella**

Laia

MUSIKA DENDA

San Esteban 37, Tfnoa: 63 10 59 **BERA**
Compact disk bat

Portada moztu nahi ez baduzu, idatz ezazu erantzuna eta zure datuak paper batean eta azaroaren 8a baino lehen guri bueltatu. Aurreko hamabostaldiko sariak hurrengo alean agertuko ditugu. Animo! Zuk ere eskura dezakezu sari bat!

Galdera: Argentinako zein herritan jaio ziren Agustina eta Magdalena Almandoz?

Erantzuna:.....

Izen-deiturak:.....

Helbidea:..... **Adina:**..... **Tfnoa:**.....

Gusto baduzu, erantzun ezazu galdera eta guri bueltatu lehenbailehen: *ttipi-ttapa*, Frantxiskaren Saskia, Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA

NON - ZER

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/21 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 22 ERREPORTAIA:** "Lekarozko instituttoa: Arazoak? Ugariak!"

Juainas
-
- 24 ELKARRIZKETA:** "Magdalena eta Agustina Almandoz" Arkupeak Jubilatutako elkarteak antolatutako bidaian Argentinatik etorritakoak.
Patxi Larretxea
-
- 26 KIROLAK:**
Mattari, Roman.
-
- 28 OSASUNA:**
Nafarroako Osasun Mentaleko Taldea
-
- 29 ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Altzuguren
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-
- 31 DENBORAPASA**
Enbido
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldúa Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa 088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarar515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO**ZENTRUAK:**

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Deialdiak

► **Lesakan**, azaroaren 2an Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **Donezteben**, urriaren 26an, arratseko 7,30etan, Malerrekako Euskara Zerbitzuak deitua. GAIA: heldu den abenduan zehar eta herriz-herriz, euskarazko ekitaldien antolakuntza.

Hitzaldiak

► **Beran**, Gure Txokoak antolaturiko "Kultur Ihardunaldietan", azaroaren 8an,

arratsaldeko 7,30etan Jamotenean, "Euskal Herriko Perretxikoak" gaiarekin Aranzadi Natur Zientziak Elkartearen eskutik.

Azaroaren 9an, arratsaldeko 7,30etan Ehiztari eta Arrantzale Elkartearen egoitzan, "Perretxikoekiko zaletasunaren hasiera" gaiarekin Aranzadi Natur Zientziak Elkartearen eskutik.

Ibilaldiak

► **Larun Mendi Taldea**: •Urriaren 28an Berako Itzulia. •Azaroaren 4ean Biriatura.

Dantzaldiak

► **Lesakan**:

• **Urriaren 28an**, 7,30etatik aurrera ARKAITZ taldearekin dantzaldia. • **Azaroaren 4ean**: 7,30etatik aurrera EGAN taldearekin dantzaldia.

Erakusketak

► **Beran**, Gure Txokoak antolatutako Mikologi Astearen barnean azaroaren 11ean, aurreko egunean bildutako perretxikoen erakusketa eta sailkatzea Arantzadikoen laguntzaz.

Bota bertsoa**Bitor Elizagoien**

Gaia: Gasolina gora doa

Doinua: Bertso berri batzuek behar ditut jarri.

Ez da batere ona oraingo denbora begiratu ezkerorako Persikora borroka edo gerra bertan egongo da jornaleta jeta eta gasolina gora hori da salsa horrek dakarren mejora(Bis).

Superra gora doa gasoila berdina hamabost egunetik bost pezta gutxina batetik gezurra ta bestetik muzina hau nahi digute egin hemendik aintzina aberatsei bakarrik eman gasolina(Bis)

AGENDA

Lehiaketak

ARGAZKIA

► **Baztanen, II. Ekologi-argazki Lehiaketa** Baztango Kultur Zerbitzuak antolaturik.

Gaia: Baztango Ballearekin zerikusirik duten ekologi gaiak.

Modalitateak: Zuri beltzean eta koloretan..

Formatoa: 30x40 zm.

Nora bidali: Baztango Balleko Etxea, Argazki Lehiaketa, 31700 Elizondo.

Epea: Azaroaren 15a arte.

Informazio gehiago, Baztango Kultur Zerbitzuan, Elizondoko Balleko Etxera (580006) deituz.

Antzerkia

► **Beran,** azaroaren 8an "Durango amets bat" lana, GEROA-k antzetzua Alzateko frontoian.

Gastronomia

GAZTAIN FLANA

Osagaiak:

500 Gr. gatzain, esne litro bat, 300 gr. azukre beltza, 6 arraultz osoak eta 3 gorringo.

Lehenik gatzainak egosi, zuritu eta pasapu-



Donamariako Bentak emana.

retik pasatu. Gero flanaren zolean azukre-kara-

melo jarri. Esnea egosten jarri eta bertan azukrea eta gatzain-purea bota.

Osagai guziak ontzi batean nahasi ondoren, flanerara bota. "Bañomarian", hiru ordu iaurden eduki, 150ºtan.

Zerbitu, sagar-konpotaz lagundua eta gatzain osoekin apaindurik egitea gomendatzen dizuegu.

Baserriko feria

Arbolak sartzeko eta pistak egiteko laguntza deialdia

Nafarroako Gobernuak subentzio deialdi bat zabaldu du arbolak sartu edo pistak egin eta zaindu nahi dituzten guztientzat. Eskakizunekin aurkeztu beharreko dokumentuak; Lurraren jabetza paperak, lanaren aurrekontua, lur eremua

non kokatua dagoenaren plano eta Alkatearen oneritza. Hiru miloi baino gehiagoko aurrekontua bada, teknikoak sinatua aurkeztu beharko da. Eskakizunak, Nekazaritza, abelzantza eta mendi saileko errejistroan aurkeztu behar dira.

Garraiolarien greba dela eta, ez da esne biltzerik ez eta baserriko produktorik saltzerik izan. Ez da, beraz, azken asteotan merkatu mugimendu haundiegirik egon. Horregatik ezinezkoa zaigu prezio berririk ematea. Lehenbailehen arazo hauek konpon daitezela espero dugu denon onerako.



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Irratia

Xorroxin Irratia

Bortziritako eskoletan Urrian eta Azaroan egingo dituzten irratsaioen zerrenda:

- 29, 30, 31ean, Berako Lanbide Eskolatik.
- 5, 6, 7, 8, 9an Lesakako Eskolatik.
- 12, 13, 14, 15, 16an Lesakako Ikastolatik.

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8.00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12.05: Etxeko lanak.
- 12.15: Konkurtso kultu rala.
- 12.30: Egunkariak begiratzuz.
- 12.45: Nafarroan zehar
- 13.00: Herriz herri.
- 13.25: Oharrak, etab.
- 13.30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.


Musika

Delirium Tremens

Ez. Ez pentsa Osasunari buruzko orrialdean zaudela, alkoholaren efektu txarrak irakurtzen. Txoko honetan musikaz ari gera eta oraingoan Delirium Tremens taldeak argitaratu berri duen "Hiru aeroplano" diskaz.

Diska berriarekin batera, beste kitarrista batek eransten duen indarrarekin datozkigu mutrikuarrak: Kortatu taldean egona den Iñigo Muguruza, hain zuzen.

Hasieran, Euskal herriko "Sex Pistols"-ak deitzen bazieten ere, badirudi beraien estilo propioa aurkitu dutela, aintzineko freskotasuna eta herrikoitasuna ahaztu gabe. Letrei dagokionean, argi dakusate Deliriumgoek non bizi diren eta zer nahi duten. Ekolojia, langilegoaren egoera, Iparamerikako in-



perialismoa dituzte gairik serioenak, beti ere "Hiru aeroplano" bezalako kanta "gamberroak" nahasiz.

Beraz, progresioa nabaria da Zarrapo talde iruñearrekin erdibana grabatu zuten Lphartaz oraingo "Hiru aeroplano" honetara. Euskal rockaren egoera mottela ikusirik, Delirium Tremens dirudi

etorkizunari begira talderik aipagarriena.

Taldearen musika da beraien jarraitzaileentzat alkoholik onena eta horrekin huts hutsik aisa mozkitzen dira. Delirium Tremens-a da, baina lasai, ez dago osasunarentzat arriskurik.

AITOR

ATERPE jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA

IRUBIDE

ostatua
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98. IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

HONTAZ ETA HARTAZ

HBk Iruñea - Irun ibilbidearen hobekuntza proposamena aurkeztu du Udaletan

Jadanik zazpi udaletan onartua izan da

Bera, Oitz, Etxalar, Arantza, Sunbilla, Bertizarana eta Iturengo Udalek onartu dute jadanik, Belaten barrena pasatzen den Iruñea - Irun ibilbidearen hobekuntzaren alde, HBk eskualdeko udal guztietan aurkeztu duen mozioa.

Bortziriak, Malerreka eta Baztango Herri Batasunarentzat "harrigarria da Nafarroako Administrazioak ez aintzat hartzea irtenbide hau, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko bide komunikazioen hobekuntzan. Iruñea-Irun ibilbidea Belatetik barrena, Tolosatik baino 22 km. laburragoa da eta gainera ez da peajerik ordaindu behar. Motzago eta merkeago izateaz gain, herrietako jendearentzat ondorio onak ekarriko lituzke.


Badira zati batzuk egokitze neurriak behar dituz-



tenak. Horrela, Bera - Irun eta Iruñea - Sorauren tarteunetan galtzadaren desdoblamendua; Mugaire - Bera eta Sorauren - Belate tarteunetan trazaketaren egokitzea eta Belateko mendatean trazaketaren bariantea beharrezkoak lirateke".



Bortziritako Euskara Mankomunitateak bultzaturik, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan errotulo berriak jarri behar dituzte. Argazkian ageri den bezalakoak izanen dira; euskara hutsez, alegia eta herri hauetako karrika, plaza eta auzo guztietan ezarriko dira.



Feriak ganean ditugula! Elizondon urriaren 26 eta 27an; Donezteben Azaroaren 16an eta Lesakan, seguruenik, azaroaren 28 eta 29an.



BATZOKI
JATETXEA
OSTATUA
Tfnoa.: 63 79 31
Lesaka

J. M. ANDUEZA
Elektrizitate instalazioak
Bidaso 77, Tfnoa: 63 08 54
BERA

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

TXOKO
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta
gosariak ematen dira

ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91

AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN (EZ BEGI ETA EZ PUZTAN)

Irailaren 23an Elizondon, udalak antolaturik azienda sariketa izan genuen. Goiz goizetik hori zen mugimendua. Behiak eta ardiak garraiatzen ikusteko aukera izan zuten garaiz plazaratu zirenak.

Orduak pasatu ziren moduan jendetza ugaritzen zoaien; han-hemenka solasean, azien-daren edertasunaz mintzo:

"...Ño!... Bai ipurdi ederrak behi horrek!... "Etziok goseak".

"...Ukiziok, uki-zio, a ze bizkarra

diken ardi honek... Horrek ez dik belar-bakarrik jan...Ez, ez dik mendiko zorri aunitzik bildu" Eta pareko solasak entzuten genituen. Eta horrela heldu da SARIEN BANATZEA.

Si. Si... Oh, Oh... probando, probando... Altabozetan proba batzuk eta Udaleko ardura-duna hasten zaigu: BUENOS DIAS, agradecemos a todos vuestra presencia en este evento, máxime cuando por motivos que no vienen al caso extendernos... eta horrela dena ERDERAZ. Beno barkatu, DEN-DENA ez, zertaz gero horrela jarraitu zuten.

Así ha resultado premiado con el premio... M. J. Etxandi.

Etxandi ez dute aldatu, baino datoren urterako, zaude

te lasai!!! horrela izango da: ... resultado premiado M. J. Casagrande.

Baztanen aurrera bai goaz!!!



Joseba

"BI HITZ" K. ISASIRI ERANTZUTEKO

Ez da nere asmoa zure aitaren adierazpen matraka horrekin goiti eta beheti ibiltzea, ezta adierazpen horiek trukatzea edo gordetzea ere, hori egiteko arrazoirik ez dagoelako.

Edozein moduz, afera hau akitutzat emateko errandiezazukedan gauza bakarra zera da: gusto haundiz leitu dudala zure esplikazio edo azalpena eta erraten duzunarekin arrunt ados nagoela, baina hori ez zela nik eskuratu nuen periodikuan agertzen. Hortaz, kopia bat bidaliko dizut zeunek irakur dezazun.

Azkenik, oroite-razi labur-labur hau xe zela aintzineko eskutizan adierazi

nahi nuena, HERRIKO JENDEAK IKASKETA MAILA HAUNDIRIK EZ BADU ERE JAKINDURI EDE-
RRA DUELA. Ber-
terik ez.

(Mila esker *ttipi-ttapa* koei "ergelkeri hauek argitaratzea-gatik!)



Ana Erasun
72.665.764

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

GAZTAÑAGA Taberna

Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 510434 - LEITZA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa: 63 11 88

SAROB okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

”Kultur Ihardunaldiak” garatzeko prest dauka egitaraua Gure Txokoa elkarteak

”IV. Lurraren Eguna” ekitaldia Urriaren 28an burutuko da egintzez beterik



Joxe Lantz burria lantzen

Homan



Jamotenea. Gure Txokoa Elkartearen egoitza

Artx-00a

ROMAN HARRIBILAGA

Udazken urtaroaren iristearekin batera etorri da ere euskal kulturari eskeinirik eta Gure Txokoa Elkarteak Kultura Sailak antolatutako dagoen ”Kultur Ihardunaldiak” deritzon egitaraua.

Prestaturiko egintza guztiek herri, eskualde eta Euskal Herriko gizartearen maila guztietan egunero bizitzan sortzen diren iharduera edota arazoekin zerikusirik daukaten gaiak aurkeztuko dituzte, elkarrekin loturik agertuz.

Egitarau zabala

Era honetan, Urriaren 26an, arratsaldeko 7etan, Labiaga Ikastolan Lurralde Koordina-

kundeak Leitzarango Autobiderako burutu duen egitasmoaren bideo emanaldia izanen da, hitzaldi batez lagundurik ondoren; 27an, arratsaldeko 6etan, ”VI. Bidasoa” bertso paper lehiaketaren sari banaketa Jamotenean.

” IV. Lurraren Eguna”

Urriaren 28an, ”IV. Lurraren Eguna” garatuko da egun guztian zehar. Goizeko 10etarako ekarriak egon beharko dute Bortzirriak eskualde mailan antolatu den ”IV. Gasna Lehiaketa”-rako aleak: aldi berean, barazki eta fruitu erakusketa izanen da; 10etan artisau erakusketa zabalduko da

Altzate karrikan arratsaldeko 2ak arte, gero berriro zabalduz arratsaldeko 3, 30etatik 7ak arte; arratsaldeko 5etan, Altzateko plazan Otsagiko dantzari taldearen emanaldia; 6etan, plaza berean, gasna lehiaketaren sari banaketa; eta 7etatik aintzinerara, Altzate plazan ere, Joselu Anaiak taldearen musika. Egun guztian, trikitilariak kalez kale ibiliko dira giroa alaitzen.

Jarraian, Azaroaren 3an, arratsaldeko 10,30etan, Altzateko frontoian ”Todas tenemos la misma historia” lanaren antzespina, Gasteiz Antzerkiak aurkeztua. Azaroaren 7an, arratsaldeko 2,30etan, Altzateko frontoian ormi-

rudigintza, ikastetxe ezberdinetako ikasleekin.

Mikologi astea

Aurten go ”Kultur Ihardunaldiak” en egitarauak dakarren berritasuna, mikologiari eskeinitako zaion astea da, helburu didaktikoekin Gure Txokoa Elkarteak Berako Bidasoako Ehiztari eta Arrantzale elkartearekin antolatua.

Azaroaren 8tik 11ra hitzaldiak eta erakusketak burutuko dira, perretxi-koak hobekiago ezagut ditzagun.

Bestalde, Azaroaren 11an goizeko 11etan Herri Kirolak erakustaldia izanen da Toki - Ona futbol zelaian.

LESAKA

Lesakako Udalak Laminaciones-en anplazioa burutzeko lehen pausua eman zuen

EAJ eta EA alderdien botuekin Arau Subsidiarioak aldatu ziren

AITOR AROZENA

Bi egunetan zehar burutu zen pleno iskanbilatsuan Lesakako Udalak baiezkota eman zion EAJ eta EAren botuekin Laminaciones-ek aurkeztutako idazkiari, orain arte ez industrialak izan diren lurak industrialak bihurtzeko. Arau Subsidiarioen aldaketa eskatzen zuelarik.

Erran bezala, plenoa iskanbilatsua suertatu zen eta lehenengo saioan, jendeak sortzen zuen zarata zela eta, alkateak sesioa hurrengo egunerarte suspenditu zuen, bilkura honetan jendearen sarrera galeraziko zela erranez.

Herritarren alegazioak Herritarren alegazioak

Herritarren alegazioak erantzuten izan zuten zererranik sesio honetan, bertan 37 alegazio aurkeztu bait ziren, baina hauetatik bakarria onartua izan zen. Laminaciones-ek sortzen dituen soinu eta keak, aisialdirako tokien



Artxiboa

falta, herriko gazteen langabezia eta konbenturen balio historiko, artistiko eta sentimentala aipatzen ziren aurkeztutako alegazioetan, baina hauen onarpenaren alde HBko zinegotziak bakarrik agertu ziren, EAJ eta EAko botuekin desestimatuak izan zirelarik.

HBren konklusio orokorrak HBko ordezkariek,

bi saioetan gertatutakoa ikusi ondoren, "herria Laminaciones-en eskuetan dagoela" zioen. "Bere

burua demokratikotzat jotzen duten partiduek, herraren partehartzea galera izi dute hainbeste garrantzi duen arazo hontan. Azkenik, ez dugu ikusten arrazoi tinkorik Laminaciones-ek eskatzen duena onartzeko eta hau onartu duten alderdiei zergatia galdetzen diegu".

Alkatearen erantzuna Alkatearen erantzuna

Alkatearen erantzuna erantzunak "hiru arrazoi nagusi daude Arau Subsidiarioak aldatzeko. Lehenengoa, lanpostuak mantentzeko garrantia izanen zen.

Bigarren arrazoia, lesakarrak hainbat urtez lortu nahi izan dugun hiri eta kirol azpiegitura behin eta betikoz lortzea. Azken arrazoia eta garrantzitsuenak, Arau Subsidiarioen aldaketarekin, orain arte Laminaciones-en izan diren lurak Udalaren eskuetan gelditzen direla eta honek fabrika gehiago ez dela zabalduko garrantia ematen duela".

ttipi-flash

•Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eginko funtzionarioen euskalduntze Plangintza, ahobatez onartu du Udalak. Honen arabera, 6 langile, idazkaria barne, euskara ikasten edo hobetzen hasiko omen dira.

•San Fermin Jubilatuko Elkarteak antolatutako Jubilatuentzat dantza ikastaroak hasiko dira Azaroaren 5ean. Izen ematea Nafarroako Aurrezki Kutxaren edozein bulegotan egin daiteke.

BIDEO BELAI
Hamabortzero pelikulen aldaketa eta berrikuntzak
Tfnoa.: 63 77 80
LESAKA

ARRATZUBI ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79, Bittiria karrika - LESAKA

FONDA XATURETXEA
TFNOA.: 63 70 27
LESAKA

Ehizturi elkarteak 138 kide edo sozio

PELLO APEZETXEA

Hiru motatakoak dira kideak: Etxalarren jaio eta bertan bizi direnak, Etxalarren jaiotakoak gaur kanpoan bizi direlarik, eta azkenik, herri honetako alabekin ezkondata daudenak. Berezitasun horiek kuota ordaintzerakoan kontutan hartzen dira. Etxalarren jaio eta bizi denak 2.000 pzta. ordaintzen dituen bezala, kanpoan bizi den etxalartarrari 3.000 pzta. ordaintzea dagokio, etxalartarrarekin ezkondukoak 5.000taraino pagatu behar duelarik.

Elkartea da Etxalarko dermio osoa bertako ehizturientzat mugatzen (akotatzen) duena, herriari honenbertzekoa urtean ordainduz. Aurten 190.000 pezeta ditu eman beharrak



Etxalarren, hiru lekutan prestatzen ditu elkarteak ehiza postuak: Usategietan, Ursumiatsean eta Gorospilean. Leku bakoitzean norik parte hartu nahi duen, kideek aintzinetik eman beharra daukate izena. Aurten Gorospilerako 44ek eman dute izena, Ursumiatserako berriz 62k, Usategietako sei postuetan 29k parte

hartu dutelarik. Lehenbiziko bietan ez bezala Usategietan sosa eman beharra nabaritzen dela dirudi.

Ehiza ugaritzeko zerbaite burutzen ote den galdetzean, hauxe erantzun digu Joxe Mari Maiak, gaur egun presidentea denak: baso-oilar eta erbi-kumea bota dela aintzineko urteetan, eta mantendu egin bada ere, ugaritu ez

dela sobera egin.

Herritarrei Udalak emandako diru laguntzak

Herritarrek eskatuta, zenbait diru laguntza banatzen ditu Udalak beraien artean. Honen erakuskari, irailaren 13ko bileran Udalbatzak onetsitakoak izan daitezke. Sarreiberriko Bixente Uribe-Etxeberriari, bidea hobetzeko, materiale eta garraioaren erdia, Udalak arautzat daukan bezala, Solfeo eta kordiona ikasle talde bati, Juan Martin Ansalasek gurasoen izenean eskatuta, hileko 15.000 pezeta, Hasi berria den ikasturtean eskolako haurren musika irakasleari ordaintzeko, irakaslearen eskariaren arabera, 175.000 pta.

Bortzirietan, gizarte zerbitzurako asistente sozial berria

Arantzan astelehenero egonen da 11,30etatik 12,30etara

JON LARRETXEAA

Bortzirietako gizarte zerbitzurako asistente sozial berria hautatu dute. Itziar Iriarte iruñarra, hain zuzen. Dakizuen bezala, lehen zegoenak alde egin-

da hilabete batzuk hutsik egon da zerbitzu hau, baina berriro ere izango du zerbitzu hau erabiltzerik: Arantzan astelehenero 11 terditik 12 terditara egongo omen da publikoa atenditzen.

Ehiza gutti Urrian

Aurtengoan ere, lerro hauek idazteko orduan bederen, ez dute ehizaldi haundirik izan, denborak ez bait die lagundu. Haize haundiegiak nonbait, Be-

raz, ez dago berri haundirik arlo honetan baina Arantza bezelako herri batetan nola gelditu gai hau aipatu gabe sasoi

(bertze aldean segitzen du)



honetan? Karrika, taberna, etxetan... ehiza da gai nagusia eta ehiztariak ez garen banakak ere horretaz mintzatzera behartuak egoten gara, kontra azaltzeko bada ere. Hemen-dik, kartutxoak nonnahi botata ez uzteko eskatuko nieke, penagarria izaten bait da setto ondotan botata ikusten direnak.

Etxebizitza eta lokalen zentsoa

Egun hauetan etxebizitza eta lokalen zentsoa egiten ari omen dira. Zentso hau hamar urtetik behin egiten omen da. Beraz ez harritu etxera joan eta datu batzu eskatzen badizkizute.



Artxiboa

Gimnasia ikastaroa

Iaz bezala, aurtengoan ere mantenimendurako gimnasia izanen da. Nahi izanez gero Herriko Etxean apuntatu daiteke. Tfnoa. 634005

Jubilatuen lokala egiteko konstruktorerik ez

Orain dela bi edo hiru ale jubilatuentzako lokala moldatuko zela aipatzen

genuen. Dirudienez, oraindik ez da konstruktorerik azaldu eta beraz, obra egin gabe dago. Hemen-dik dei egiteko erran digute, ea norbaiti interesa dakioken. Egin beharreko obrari buruzko informazioa eta aurrekontua Herriko Etxean dago, norbait interesaturik balego.

Udazkeneko Jira-Bira

Udazkeneko Jira-Bira edo Ronda de Otoño, bi aktuazio izanen ditugu Arantzan. Azaroaren 3an, larunbata, dantzak IRUÑA Taldearekin eta Azaroaren 4ean musika korala: "Coral Universitaria de la Escuela de Magisterio".

IGANTZI

Euskara klaseak hasiko laister


Astelehen, astearte eta ortzegunetan, egunean bi orduz

OSKAR TXOPERENA

Badirudi azkenean, eta aspaldiko urtetako partez euskarazko klaseak haste-ko daudela Igantzin. IKA-k eskeinitako aukerari heldu nahirik, gazte talde pare bat bildu omen da azken egun hauetan. Hasiera batean, erraten denez, astean hiru egunez (astelehena, astearte eta ortzeguna) eta bi orduz izanen omen dira klaseak, seguraski gazteenak 6etatik 8tara eta bertzeak 8atik 10etara. Zuek berri

hauek irakurtzerakoan klaseak hasiak izanen badira ere, beti momentu

ona da talde horretan parte hartu eta euskara lantzeko.



Artxiboa

Gimnasiara apuntatzeko epea

Joan den urtean egin zen bezala, Udaletxeak kirol koordinatzailearekin batera, mantenimendurako gimnasia kurtsilloetan parte hartzeko epea zabaldu du. Kurtsillo hauetan parte hartu nahi dutenek izena udaletxean eman beharko dute, larunbata 27a baino lehen. Joan den udaberriko orduak eta egunak izango dira gutti gora behera.

(bertze aldean segitzen du)



Argentinarre agurra

Denak dakizuen bezala Argentinara joandako zenbait lagun bisita bat egitera etorri zaizkigu Arkupearen eskutik. Izugarrizko egitaraua bete behar izan dute egun horietan baina hemen aipatuko dugun bakarria herri honetan egindako besta izanen da.

Bortz izan dira Igantzin omenduak: Jose Iraola Etxebeste (Agestenekobordatarren familikoa), Miguel Lizardi Yanci eta bere emaztea (Txopeneko familikoak) eta Nestor Agirre eta Celia Lezeta Manterola (Iribarrengobordatarren familikoak). Bazkari eder bat eskeini zitzaizen Biltoki Elkartearen Pello Aldabek, bertze

anitzetan bezala, prestatu-rik. Hantxe bildu ziren omendutakoen lagun eta senideak hemen pasatu beharreko azken egunak ahalik eta hobekien aprobetxatu nahirik bezala. Momentu hunkigarriak ez ziren faltatu, noski.

Ondotik udaletxera hurbildu ziren udalbatza-
ren omenaldia jasotzera ere. Han, omenduak, alka-

teak eta Arkupeko ardura-
dunak, Martin Jaunak, hitz batzu erran zituzten eta malko eta negarrari ezin kontu berriro ere. Udalbatzak oroigarri txiki bana eman zien hitz hauek agertzen zirelarik: "Igantzikoko herriak, zuen bisitarren oroigarritzat".

Adintuak izan arren ez dugu berriro ikusteko esperantza galtzen.

ZUBIETA

JUAINAS

Haizea indarrean dabil, ehizturien pozarako, hau argitaratu orduko hilabetea akitzen ari bada ere... usoak, ekologistak, ehizturiak... nahaspila galanta!

Pilaka ere, gau-pasako jendaira, nahiz Gartzainen bestak egun berean egin. Juegarako gero eta jende gehiago bait dago! Juegak ere prestatu behar izaten dute eta zubitarrok, Jon Mikelen harridurako, **kirol entrenamendua** seriozki hartu omen dute, finala gainean bait dugu. Sinistu ezinik badabil ere lortu duela dirudi, dutela hobe esana, azkenengo galtzeak pikatu bait dituzte eta hemendik aurrera akuilu beharrik ez dute izanen, seguraski.

Aurkidiko argia

Aurkidiko argia paratuko dela dirudi, Udala eta



Zubietako Ostatuako teilatua moldatzen ari dira

Artxiboa

jabeen arteko negoziazioak toki onara ailegatzten baldin badira. Udalak, obraren kostoa dela eta, partikularren kargu ehuneko hamarra utzi nahi du, haiek azkeneko hitza dutelarik.

Ostatuaren teilatuan moldaketak

Ostatuaren teilatuan lanean ari dira, zur ustela pentsatu baino gehiago

agertu delarik... Zurajea aldatuta, ostatua noizko? Heldu diren Inñotitarako zerbait moldatu beharrean gaude! Arkitektua, Udala eta gazteen arteko bilerearen bat egin beharko da, bilerei amorrua badiegu ere, edo beste tokiren batetaz pentsatu, zezenak harrapatzea ez badugu nahi!

ETB

Eta bilerak zerbaiteta-

ko balio dezaketela frogatzeko hor dugu Euskal Telebista, oraingo hontan ikusten dugula esateko aipatzen dugularik, aspaldiko partez eta itxura onean.

Tiro sarta bat aditu dut, oraintxe bertan!

Dagoeneko kongeladore guztiak beterik dau-
de.

Utz ezazue datorren urterako bakarren bat!

ITUREN

Aurtizko bestak Azaroaren 9tik 12ra

IBAN ISASI

Aurtengo bestetako egitaraua hauxe izanen da.

Azaroak 9, ortzirala: 19.00etan altxaferua botako da Aurtizko ostatutik. 19.00etan kalejira eta Paziko zopak; 23.00etan dantzaldia Martin Trikitalariek. 2.30etan Jose Angel akordiolariarekin dantzaldia. **Azaroak 10, larunbata:** 10etan trikitalari eta txistulariak; 11.30etan krossa; 13etan pilota partidua; 18etan Iturengo Dantzari Eskolaren ekitaldia. Arratsalde eta gauz dantzaldia AKARI taldearekin. **Azaroak 11, igandea:** 10etan txistulariak; 11etan trikitalariak; 12.30etan herri kirolak (Sunbilla eta Zubietta proba konbinatuak); 17etan Lesakako Banda



eta kalejira; arratsalde eta gauz dantzaldia EGAN taldearekin. **Azaroak 12, astelehena:** 10etan txistulariak; 11.30etan Mus Txapelketa; 13etan bertsolariak eta ondoren auzobazkaria. Arratsalde eta gauz dantzaldia Jose

Angelekin beste bukaera emanez. Ongi pasa!

Makilipurdiren markaketa

Entresaka egin eta subastara atera beharreko pago eta haritzak markatzen hasiak dira.

Aurtizko Pilotalekuko lanen bukaera

“Koianea ttikia” izeneko frontoian Auzolanen eta Udalaren kontratatuen bitartez eginiko lanak bukatu egin dira, bertan berrikuntza ugari egin direlarik.

“Paro”koen lanak

Azken hiru hilabete hauetan, Udalak hiru langile hartu zituen Iturenen zenbait lan egiteko. Egingako lanak hauexek dira: Iturengo sarreraren garbiketa, Ibarlako bi landaketen garbiketa, Itturnako ur-hartzearen garbitzea etabar. zerbitzuan jartzea. Aurtizko Pilotalekuaren moldatzea, Aurtizko ur-hartzea tuboz. Elizarako bidearen garbiketa eta zenbait bideren garbiketa, eskolaren pintatzea...

SUNBILLA

Obrak eta proiektuak aintzinerara doazi

Meakatik ur ekarketa berria heldu den urtean

PATXI PETRIRENA

“Plan trienal” edo hiru urteko planaren barrenean sartutako obren artean Meaka deituriko parajetik herrirako ura ekartzea aurkitzen zen 1991 urterako, eta proiektuaren

zuzenketaren ondoren obra hasteko moduan egonen da hemendik guttira. Deposito berria egiten da Gilenbaitako gainean, lehengoarekin bat egiteko moduan jarritz, nibel berean. 10 milioiko aurrekontutik, %70a Na-

farroako Gobernuak odainduko du eta %30a herriak.

Bertzalde, trenbidea moldatzeko proiektuaren erabateko onarpenaren ondoren, Abenduaren 17an betetzen da obren adjudikazioa egiteko epea

eta handik aintzinerara hila-bete bateko epea dago hasteko. Beraz, heldu den hilbeltzean hasia beharko luke trenbideari ormigoizko zola emateko lanak.

(bertze aldean segitzen du)



Mendaur aldeko bi-dearen konponketa

Egina dago dagoeneko Mendaur aldeko baserrietara doaien bide zatirik okerrenaren konponketa, ormigoia botaz 300 bat metroan, lekuri aldapatsuean hain zuzen ere, Ezpondakobordako eta Urriztibileko bidegurutzeen artean. Bortz milioiko aurrekontutik %42a Nafarroako Gobernuaren gain joanen da. Modu



berean bertze zenbait bide konpontzeko aukera az-

tertzen ari da Udala heldu den urterako.

Trikitixa eta dantza ikastaroak aurten ere

Iaz bezala ari dira herriko neska-mutiko franko euskal dantzak eta trikitixa jotzen ikasten, Josune eta Ainhoarekin. Aipagarria da bi irakasle hauek parte hartzen dutela "Udazkeneko bira" kultur saioetan. Dagoeneko Iturenen aritu dira eta Larraizar, Ziorbia eta Ziaurizen ere ariko dira.

DONEZTEBE

Udal langilegoa euskalduntzeko plangintza onartua

Ikastaroak dagoeneko hasiak dira

TXEMA ALDABE

Doneztebeko Udalak, Malerrekako guziak bezala, erabaki hori hartu zuen urriaren 4ean ospatutako bileran Euskara Zerbitzua- ren eskaera ikusi ondoren. Honetaz gain, Nafarroako Hizkuntza Zuzendaritzari eskatuko zaio dirulaguntza eman dezan ikastaroak burutu ahal izateko.

Dagoeneko ikastaroak hasiak dira Udaletako langileek eta Osasun Zentrokoek elkarrekin ematen dituztelarik klaseak.

San Migel ermitarainoko bidea moldatuko

Karreteratik ermitarainoko bidea moldatzeko tresneria eta materiala Udalaren gain izanen da.



Aurten, tenetan postua jarri nahi dutenek garestiago ordainduko

Eskulana, berriz, auzokideen artean egingen da auzolanean.

Azaroan zinea

Azaroan hasiko da Apirila azkena arte irau- nen duen pelikulen emanaldia. Jakina denez pelikula asteburutan eta bes- ta-egunetan botako dira.

Hiru lanpostu sortuko dira hau dela eta, bat sarrerak saltzen, bertzea atezain eta azkenik operadore bat filmak botatzeko. Garbitasuna atezain eta takilakoaren artean egingen dute.

Iazko kurtsoaren balantzea egin ondoren, diru sarrerak 2.079.600 pztata-

koak izan ziren eta gas- tuak, berriz, 2.613.376 pztatakoak, milioi erd pasatxoko galera izan ze- larik.

Azaroaren 16an feriak

Ohi den bezala aurten ere San Martinetako hurrengo ortziralean izanen dira. Aurten postua jarri nahi dutenek iaz baino 50 pzta. gehiago ordaindu beharko du metroko.

Elizako erloju berria

Ez da gauza berria elizako erlojuaren puntualitate noiznahi geldirik beno, hobeki erranda gehienetan. Ba, abudu jubilazioa emanen diote eta berri bat paratu; eska- tuko dituzten hiru aurre- kontuetatik egokiena.

BAZTAN

26 eta 27an urriko feriak izanen ditugu

Aziendak, nekazal tresnak, oinetakoak, turroiak, mantak... ausarki 2 egunez

AÑONE

Urriaren 26 eta 27an Elizondon Urriko feria ospatuko da. Ohitura den bezala, San Lukas pasatu eta hurrengo ostiralean, lehen aziendak protagonista nagusiak baziren ere, gaur egun, nekazal tresneria da. Zenbait merkataritza txek bere makinak Erreote Plazan erakusten dituzte. Merkatu Plazan herriz, behiak, arretzeak, ardiak, zaldiak, behorrak, abar salgai egoten dira.

Elizondoko karriketari burgiltzen bagara edozein gauza eros dezakegu: jantzi, manta, oinetako, urri-aiatzpiko, gasna, aizkora, kaska, kaseta, txori, arrain-erri, eskulan, etabar. Gostu hauek Foru Plaza, Aime Urrutia, Santiago, Pedro Axular eta Giltzaurren karriketari kokatzen dira. Azkeneko bi hauek, gaur egun, hasi bait ziren martzen.

Atzendu ezin dugun ohitura bat turroiarena da. Gaur egun hortan, baztandar behienak almendra edo



kakahuete eta eztiak eginko turroia jaten dugu.

Goizez feria ikusi eta beharbada zerbait erosi ondoren, aunitzek jatetxetan bazkaltzen dute. Inguruko jatetxeek lan haundia izaten dute egun hontan. Arratsaldean, Elizondoko Baztan Pilotalekuan, esku-pilota partiduak izaten dira.

Egun hau, besta eguna izaten da Baztan osoan. Gehienak Elizondora jausten dira eta aspalditik

ikusi ez dugun ahaidea edo laguna ferietan ikusiko dugu. Euskal herriko bertze tokietatik ere, jendea hurbiltzen da.

Denbora batean, larunbatean "Atsoferie" eguna izaten zen. Gaur egun, etxeoandreak berdin ibiltzen dira ortzirala edo larunbatean. Batzuk nahiago dute larunbatean jautsi, ez ohitura mantentzeagatik, jende guttiago eta gauzak ostiralean baino merkeago erosten ahal dituztelako baizik.

W ttipi-flash

•**Gartzaingo bestak** aintzindu egin dituzte San Martinetatik Pilarikara. Urriaren 11an hasi ziren Baztan zopekin. Beste egunetan, herri kirolak, dantzariak, haur jokoak, etabar izan ziren. Astelehenean, Zikiro jatea 70 lagunekin. Bestak akitzeko "Sorgin afaria".

•**Arizkunen errebestak** Urriaren 20an eta 21ean, Arizkunen lehen aldiz, errebestak egin zituzten. Larunbatean, 12etan txalaparta eta ezkil jotzearekin hasi ziren. Gero aizkol apostua eta zikiro jatea. Gabeko 9etan gazteek "Hazparneko andrea" lana antzeztu zuten. Gauerdian, gaupasa ILARGIrekin eta zingar jatea.

Igandean, 12etan mutildantza eta bertsolariak Plazan. 4etan, herri kirolak; Amaiur, NARBARTe, Sunbilla eta Arizkun. Ondotik Ustaritzeko dantzariak. 7etatik 11ak arte dantzaldia Josetxo eta bere "farfixa"rekin.

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

BEATRIZ

Lurrin denda

SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

Garraiolarien grebak arazoak sortu ditu

Gasolina eskasia eta esnea ez biltzea, arazorik larrienak

ALIZIA OLAIZOLA

Garraiolarien grebak alde hontan ere kalte egin du. Nekazariak esnea ezin dute saldu, ez bait diete eramaten. Bi aldiz, bere baitetik ahal zuten bezala zentralara eraman zuten, baina orain hori ezin da egin, piketeak toki guztietan bait dira. Dantxarriean, asteartean akitu zen gasolina eta kamioiez beteta dago. Larunbatetik, Baztanetik jende aunitz etorri da gasolina eske, Elizondon larunbatean akitu zelakoz.

Konfirmazioa

Urriaren 7an arratsaldeko 6etan konfirmazioa ospatu zuten Urdazubian 28 gaztek. Herrikoetxetik prozesioan atera ziren, eta



nahiko ongi egon zen. Gero, "Indiano Baita" jattetxean lunch bat konfirmatu zirenendako izan zen.


Udazkeneko Jira-Bira

Beste urteetan bezala, Udazkeneko Jira-Biran dantzari talde bat aritu zen

orain dela bi aste eta joan den larunbatean, 13an, antzerki talde bat etorri zen eta "Momo" obra errepresentatu zuten, euskaraz.

Eta akitzeko, Urdazubiko gazteek besta txiki bat egitea pentsatu dute. Azaroaren 3rako. Hasiko

dira footballtxo partido batekin, gero afari bat gazte guztientzat eta akitutako da dantzaldiaz "Modesto"rekin.



«ZALDUBI»

SUKALDE MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 452077
IRURITA - BAZTAN



FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64

Hartaz eta hontaz, tartarrean

ANTTON

• "AIZAN"

MENDIAN, laister hastekoak omen dira larreak goldetu eta itxituak egiten, aditu dugunez. Honekin esan nahi da "pastizala" famatuaren proiektuarekin aurrera segitzekotan dagoela Udala.

• GOITIBERA

GRAND PRIX: lehengo igandean egin zena. Uitziko gainetik herrira jautsiz "goitibera" traman-kulu polita horien gainean. Patxi eta Dani Mujika, leitzar anaiak, oraingoan ez dute ibiltzerik izan, baina beraien eskutik egin ahal izan da saio hau Leitzaan.

• NAFARROA

OINEZ zela eta, 80 gaztetxo elkartu ziren (14-17 urtetako neska mutilak) eta beraiek antolatu eta beraiek osatu zituzten bi autobus Lizarrara joateko. Aipagarria.

• NEGUKO

III. Futbol Txapelketa hastera doa. Ez federatuentzat eta larunbata-igandetan jokatzeko. Lehengo urtean bertako 8 ekipo aritu ziren.



A. MUI



A. MUI

• ISIDRO

OTERMIN, HBko zinegotzi berria bere karguaren jabe egin da Udalletxean, behar ziren papearak iritsi bait zaizkio.

• EUSKARA

IKASTAROETAN

50 Leitzarrek emana dute izena, maila desberdinetan, alfabetatzea eta EGA barru. Aste hontan jartzen ziren martxan. EPA ikastaroak ere hastekoak ziren egun hauetan.

• EHIZTARIAK

HASERRE

bizian sumatzen dira, ehizi alerik ere ageri ez delako, oraingoz. Lehen Chernobyl, orain Cacapil, baina usorik ezin bil.

Hogei-tamar emakume hasi dira ikastaro batetan

Eskulan ezberdinak egiten erakutsiko zaie: tapizak, zapatilak...

ESTEBAN AROZENA

Inglaterratik etorri eta azken urte hauetan Goizuetan bizi den Jean Ireland emakume ezagunak ikastaro bat antolatu du "Formación Ocupacional y capacitación profesional" delako kanpainaren barrenean, eta egia esan, oso harrera ona izan du herriko emakumeen artean, hogei-tahiru urtetik larogei urte arteko hogei-tamar etxekoandrek parte hartzen bait dute kurtsillo honetan.

Jean-ek esan zigunez, arropa zaharren birzikla-



tze edo erreziklaje lanak eginen dira gehien bat, tapizak, zapatilak, abizenen eskudoak eta beste hainbat gauza lantzen ikasiko dutelarik.

Beste aldetik esan beharra dago, funtzio sozial bat ere bete nahi duela ikastaro honek, hain zuzen, zaharrak etxetik aterarazi eta oraingorik lan

berriak ikasteko gai direla beraien buruei erakustarazi. Jeanen ustetan helburu hauek orain arte ongi bete dira eta ilusio handiz omen dabilta hirugarren adineko amonak eskulangintza hauetan.

130 ordu iraungo duen ikastaro honetako partaideek mila ta bostehun pezetatoko matrikula ordaindu dute, langabetuen zerrendetan daudenek ezik. Hauek dirutza horren erdia pagatu dute. Azkenik esan, astelehenetan eta asteazkenetan ematen direla klaseak, astean sei ordu osatzen dituelarik talde bakoitzak.

ZUGARRAMURDI



Sei Zuamurdiar Asian barrena joan dira **Bon Voyage**

MARGARI eta KORO

Ez dakigu ongi errateko, baina seguraski Zugarramurdi ez da izanen nior bere herritik hain urrun joan denik: Donibanen tren hartu eta Parisera, handik hegazkinez Thailandiarat, gero Nepal eta Tibeterat, azkenean

Delhitik berriz bueltan etxerat etortzeko.

Hauxe dena kurritu behar dute 40 egunez Mikel, Axun, Estefania eta Juan Luisek, Blanka eta Mikelek lagunduz (hauek joan den urtean ere

(bertze aldean segitzen du)



izanak ziren eta hainber-
tze gustatu eta aurtan
buelatu dire berriz gida-
riak bezala).

Urriaren 7an agur esan
zioten despeitzera joan
ziren lagunak, mokane-
sak airean eta begietan
malkoak ezin kontuz.
Hantxe joan dire animo
osoan. Badakite jatekoa
seguraski ez dutela sobe-
ra gustukoa izanen, kilo
mordoxka bat ere mehatu-

ko direla, eta seguru kake-
ria ere jasan beharko du-
tela, baina tira merezi
omen du.

Orain bakarrik espero
dugu Golfo Pertsikotik
hurbil pasatuko direnean
Sadam Husseinek ez nior
bidaltzea hegazkina se-
kuestratzera jakinez hala-
ko pieza baliosoak erama-
kituela eta.

Dena den, espero dugu
arazorik ez izatea, ongi

pasa dezatela eta denak
ongi etxerat itzultzea (eta
opari batzu ekartzen badi-
tuzte, hobe).

Gerlako zauritua

Ez da Golfo Pertsikoan
izan baina esaten ahal da
gerlako zauritu bat dela.
Edo militarrez jantzia zen
beti zauritu zelarrik. Joxe
ari gara: "Ainzoain Kuar-
telean" mando bat presta-
tzen ari zela maniobrak
egitera ateratzeko, ZAN-

PLA !! mandoa sublebatu
eta, a zer ostiko ederra
eman ziona aho erdian .

Hortza bat kasatu, ber-
tzea bi puska egin, aurpe-
gi erdia auntua, ezin jan,
eta makurrena... ezin li-
gatu. .

Bertze aldetik haserre
ttiki bat ere bota behar
diogu Joxeri: halako bat
gertatzea "ciudadeko"
mutil bati pase, baina
Zuamurdiar bati...

SARA

Euskararen erakaskuntza

OLAIN ELKARTEA

Heldu den Azilaren
6ean hasiko dira lehen
mailako kurtsoak. Hauek
iraganen dira asteartez,
ortzegunetz eta ortziralez.
Gaztetxean 2etarik lauak
arte. Interesatuak direnek,
behar dute deitu 59 54 24
15 zenbakira eguerditarik
arratsaldeko bietara.

Alfabetatze mailari
doakionez, kurtsoak Azi-
laren 5etik goiti iraganen
dira, Gaztetxean arratseko
8etarik 10ak arte, astele-
henez, asteazkenez eta
ortzegunetz.

Xehetasun gehiago
ukan nahi balinbadituzte,
dei ezazue zenbaki hunta-
ra: 59 54 05 91.

Euskararen erakas-
kuntzaren gure gain har-
tzea, aurtan berritasun bat
da. Sentitu dugu gazteen
artean behar bat, ikusiz



mugaz bi aldeetako gaz-
teek dituzten gero eta
gehiagoko harreman sako-
nak. Gainera harreman
horieri esker sortu da ideia
bat eta proiektu bilakatu
da hilabeteetan zehar.
Agian jende asko gure
lanari elkartuko da eta
denek batean egiten dugu
urrats bat euskararen
alde...

Elizanbururen ehungarren urtemuga

Ari gara, heldu den
urtean zehar iraganen di-
ren ospakizunen apain-
tzen. Proiektu hunen ingu-
ruan elkartzen dira bai
Olain Elkartea, bai Sarako
Herriko Etxea, baita ere
berriki sortutako Euskal

Kultur Informatua. Eztabai-
den arabera izanen da bai
bertso saio, bai kantaldi
eta behar bada ere antzer-
ki...

Sail hunekin burura-
tzeko laburki aipa deza-
gun Jean Baptiste Elizan-
bururen bizia.

(bertze aldean segitzen du)



1828. urteko Agorrilaren 14ean sortu zen Saran. Larresoroko seminarioan eskolatu zen. Ondotik, 1849. urte inguruan sartu zen armadan eta bere herria utzi behar izan zuen. Bainan bere bertsoetan agertzen zuen bere herriaren aldeko atxikimendua. Parte hartu zuen Urruñan, A. D'Abbadie-k apaindu bertso lehiaketa batean eta irabazle agertu. 1874an

ezkondu zen Urruñako Françoise Eyherabururekin. Bere seme bakarra Joset sortu zen 1877an. Urte haietan bake-juje zen.

1891ean Abenduaren 31an, 63 urtetan hil zen Sarako seme famatuenetarik izan zen Jean Baptiste Elizanburu idazle eta euskalzalea. Ondoko asteetan emanen ditugu ospakizunen inguruko xehetasun gehiago.



EZKONTZAK

Jose Jabier Gago Agesta eta **Gemma Balda Telletxea**, Sunbilla eta Ezkurrakoa, irailaren 22an.

Jose Joaquin Olhagaray eta **M. Isabel Arriada**, Zugarramurdi eta Elizondokoa, urriaren 20an.

Perugorria Jean eta **Etchegaray Bernardette**, Sarakoa, urriaren 12an.

Juan Carlos Sanjurjo Zabala eta **Adoración Gil Mikelarena**, Lesaka eta Elizondokoa, abuztuaren 18an.

Pedro Astibia Fernandez eta **Miren Josebe Mitxelena Aldaraborda**, Errenteria eta Lesakakoa, irailaren 8an.

Juan Ignacio Urzelai eta **Maria Teresa Saez Lazkano**, Legazpia eta Leitzakoa, urriaren 20an.

Jose Antonio Apeztegia Etxart eta **M. Carmen Larrainzar**, Doneztebe eta Eltsokoa, irailaren 12an.

Jose Angel Astigarraga Arrieta eta **Itziar Balda Telletxea**, Azkoitia eta Ezkurrakoa, irailaren 20an.

JAIOTZAK

Ekaitz Astibia Arregi, Leitzan, uztailaren 16an.

Garikoitz Larretxea Gortari, Arraiotzen, ekainaren 18an.

Aitor Zubigarai Aleman, Arraiotzen, uztailaren 23an.

Mikel Mindegia Ugarte, Arraiotzen, abuztuaren 15ean.

Etchegorry Tiffany Andréé, Saran, urriaren 3an.

Lander Arriola Agirretxe, Lesakan, irailaren 10ean.

Nahia Zubiri Irigoien, Lesakan, irailaren 29an.

Joana Villabona Zabala, Leitzan ekainaren 30ean.

Itziar Urroz Mutuberria, Donamarian, irailaren 30ean.

Amaia de la Cruz Etxegarai, Beran, irailaren 12an.

HERIOTZAK

Silveria Aranibar Diaz, Beran, irailaren 19an, 82 urte.

Atilano Tarazona Redal, Lesakan, urriaren 9an, 74 urte.

Julio Latasa Petrirena, Sunbilla, urriaren 15ean, 83 urte.

Lekarozko institutoa: Arazoak? Ugariak!



Jaiotza, maiz, haurdunaldiaren estilokoa izaten omen dela diote... Hala! Astoarena baina luzeagoa joan dena, hainbeste joan eta etorriak kostatu duena, ezin zitekeen normal jaio.

Kurtsoaren hirugarren astean gaude eta umeak inkubagailuan jarraitzen du.


negoziaketa-
ren ondorioz,
eta arrazoia
noren den
erraterik ez dugula, mol-
daketa lanak bukatzeke
daude, ikasgelak sakaba-
natuak, lan materialak eta
behar diren baldintzak
osatzeko.... adibideak:

Hain ederrak eta argiak
diren geletan eguzkiak
jotzen du. Kaputxinoak,
gobernuarekin zituzten ti-
rabirak zirela eta, kortinak
eraman zituzten eta eguna
aurrera doan arabera, ikas-
leek paretara hurbiltzen
dira. Sei edo zazpi ordu
bertan pasa behar dituzte-
larik, azkenengoetan neka-
tu eta egosiak egoten dira.
Zurrumurruak dionez,
aurretik zeuden kortinak
zaborrara botatzeko kendu
zituzten.

Baztango Udalak, arra-
kastatsua, Oronozko ma-
terial guztia beretzat nahi
du, hau da, bigarren aste-
rako liburuak tantaka eta
irakasleen ardura sinatua-
ren pean ateratzen utzi du,
ordenagailuak, bideoak eta
beste materialari buruz hitz-
zegiterik ere ez dagoela-
rik. Informatika, noski, teo-
rikoki erakusten da...

Instalazioek akats ugari

Hortarako, eredutzat
nahi ziren instalazioak mila
akats dituzte, inguruko
edonork dakien bezala az-
kenengo urteetan ahalik eta



gutxien ikutzen eta kon-
pontzen bait zituzten apai-
zek, dirurik ez zegoelako.
Hala eta guztiz ere udan
hasi behar zituzten kon-
ponketak Irailaren bukae-
raldean hasi ziren, eta orain
uste zuten baino zeregin
gehiago dute.

Argi instalazio guztia
aldatu beharko zen baina
Iberduerok eskatzen dituen
baldintzak betetzerik ez
dagoenez gero... Probisio-
nalki, kaputxinoen boron-
date onarekin kontatuz....
Hortarako, instituoak zein
diru presupuestokin kon-

tatzen duen ez daki... Hor-
tarako, irakasle goa, Nafar
Gobernuak eraman duen
politika eroa dela eta, osa-
tzerik dago eta osotara pro-
bisionala da: funtziona-
rioak, zerbitzu komisio-
nean eta gehiengo haundia
laboralki kontratatuak.

Pena merezi zuen guzti honek?

Noski posibilitateak,
eraikuntzak eskeintzen di-
tuztenak, izugarri onak
direla, behar bezala jarriz
gero. Polikiroldegia, pis-
zinak eta abarrekoak ikas-
leentzat izanen dira? Guzti
horien edertasunak Aran-
tza edo Bera hurbil araziko
ditu?

Zuzendaritza berrikoek
apostu latzan sartu dira,
indarrak irauntzen baldin
badie heuren mugen bar-
ruko barrutian sartuko
direla diote, borondatea
barra-barra erakutsiz...

Dena den, aspaldidanik
botatako galderak erantzun-
nik gabe diraute:

Norentzat da Lekarotz?

Nola antolatu behar da,
erabilpenerako?

Institutoak hor segi
behar du?

REM derrigorrez eza-
rriz gero, zer emanen da
bertan?

Malerrekako REM non
eman behar da ?

Etabar

JUAINAS

Magdalena eta Agustina Almandoz: «Gure seme-alabek beti erraten ari dira hemengo famiarekin harremanak mantentzeko»



Agustina Almandoz: «Gure aita nekazaria zen. Mahasti haundiak daude gure lurraldean eta hemendik joandako euskaldunak horretara dedikatu izan dira»



Magdalena T. Almandoz: «Apirilean honat etortzeko telegrama jaso nuenean poztu nintzen. Gero beldurra sartu zitzaidan bidai luzea egin behar eta ez nuelako inor ezagutzen. Orain ez naiz damutzen etorriaz».

XIX. mendearen bukaeratik etengabekoa izan da euskaldunen Ameriketako joera.

Bortziriak, Baztan eta Malda-Errekan 2.000 lagun inguru biltzen dituen jubilatutako elkarteak da Arkupeak. Argentinan euskaldunak bizi zuten egoera ikusirik eta bertako euskaldunak etorri ahal izateko zerbait egin zezatela eskatu ziotenez, Euskalerrira bidai antolatzeari ekin zioten buru belarri, horretarako behar ziren laguntzak lortzen saiatuz. Horrela bada, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Diputazioa, eskualde honetako Udalak, zenbait aurrezki kutxa eta familiaren laguntzari esker lortu dute 61 lagun Argentinatik Euskalerrira bisitatzera etor ahal izatea.

Agustina eta Magdalena Almandoz, bidai honetan etorritako aizpa bi dira. Lehendik ez dira inoiz Euskalerrian izanak, jaio ere Alvear-Mendoza herrian egin bait ziren. Euren aita ordea Arantzakoa zen, Urdingonbordakoa. Garai hartan Euskalerriko familia aunitzetan gertatu zen gauza beretsua gertatuko zen Urdingon-bordan ere; familia haundia, zaharrenak hasi ogibide bila Amerikara joaten eta azkenean bederatzirentzat 6 Amerikara joanez bukatu.

Magdalena eta Agustina haietako baten, Roman Almandozen alabak dira. Aita euskalduna izan arren, ama argentinarra zuten, ez dute gure hizkuntza bereganatzerik izan. Horregatik elkarrizketatxoan erdaraz egin behar izan dugu.

PATXI LARRETXEAA



Lehenik bidaiara zer iduritu zaien galdegin diogu: *"Uy! Zoragarria izan da. Harrera ezin hobea egin digute familiarrekoak. Beticidanik izan dugu gure aitaren lurrera etortzeko gogoia, baina ezinezkoa zen eta uste genuen sekula ez zela posible izanen egitea, baina orain Arkupeak elkarteari esker eta familiarren laguntzarekin ahal izan dugu etortzea. Benetan sinestezina da guretzako hau ikustea. Aitak errandakoa-ren arabera imajinatzen duzu nolatsukoa izanen den baina hemen begi aintzinean ikustean harrigarria iduritzen zaizu. Gure lurra zelai-zelai da eta hemengoak berriz hain berdea, menditsua, dena oiha-*

naz beteta..."

Argentinan euskaldunak bizi duten egoeraz ere hitzegi nahi izan dugu. Euskal Etxerik baduten etab.: *"Ez, gure herrian ez dago euskal etxerik. Kontutan hartu behar da gu bizi garen herria ttikia dela. Han katalanak, gaillegoak, euskaldunak denak batera biltzen gara, elkarte bat osatzen dugu denon artean. Agian, Buenos Aires eta leku horietan izanen dute euskal etxerik, baina guk ez dugu horren berririk. Etorri garen 61 lagunetatik ez genuen inortxo ere ezagutzen".*

Agustina eta Magdale-
na ezkonduak dira eta bakoitzak hiruna ume dituzte. Jakin nahi izan dugu

euren umeak zer sentitzen dute Euskalerriarrekiko: *"Guk ttikitán ez genuen euskara ikasterik izan, gure ama erdalduna zelako. Aitak hitz batzu egiten zizkigun euskaraz baina bertzerik ez. Euskara gure etxean senideak elkartzen zirenean egiten zen bakarrik edota hemendik joandako bertze lagunak etortzean. Beraz, gure umeek ez dakite euskaraz. Hala ere, beti gogoan izan dugu. Telebista edo irratian Espainiako berriak ematen dituztenean, beti adi egoten gara. Gure semeak ere arduratzen dira hemengo kontuetaz, eta beti erraten ari zaizkigu —ama, zuk ez galdu harremana Euskalerriko familiarrekin agian*

egunen batean joatea gogoratuko zaigu eta..."

Behin Argentinara itzulitakoan hemengo esperientziak hitzegiteko asmoa duten galdetu diogu. Ez dira zalantzatan ibili: *"Bai, guk harreman haundia dugu gure hango familiarrekin. Denak gu joan zai egonen dira hemengo istorioak entzuteko. Besta haundi bat antolatatu behar-ko".*

Honetantxe utzi dugu gure solasalditxoak. Itzule-
ra bidai atsegin bat desiatu eta berriro eurek ez bada, asmoa duten euren semeak gonbidatzea bertzerik ez zaigu geratzen.

Beraz, ez adiorik, gero arte baizik!

Baztan-Bidasoako Herri Kirol Txapelketaren finala, Azaroaren lean Elizondoko Pilotalekuan

Amaiur-Sunbilla-Basaburua-Zubieta eta Narbarteko taldeak iritsi dira finalera

Txapelketa hau Nafarroa osoan barrena egiten den lehenbiziko esperientzia izan da. Uztailaren 15an Sunbillako frontoian eman zitzaion hasiera afizionatu mailako txapelketahoni, ondotik ospatu izan dira Leitzan, Zubietan, Narbarten, Amaiurren, Anitzen eta Arizkunen.

Txapelketa honek bi zati ditu; bata proba konbinatua (kozkorak, txingak, aizkora, zakulari eta arpana) eta bertzea, Soka-Tira. Txapelketa, liga sisteman eraman da eta saio bakoitzako puntuaketa batuz joan da. Horrela Elizondoko frontoian Azaroaren lean arratsaldeko 6etan finala ospatuko da, bertara iritsi diren taldeak hauek izan direlarik: Amaiur, Sunbilla, Basaburua (Anitz-Berroeta eta Almandotz), Zubieta eta Narbarte.

Txapelketa honen balorazioa arras positiboa izan da, batez ere parte hartu duten kirolarien kopurua ikusten badugu, batzaz bertze 150en bat 16 urtetik 45 urtetarakoak, eta bertzalde, ikusten egon diren pertsonen kopurua hagitz ederra izan da, plaza gehienak jendez beterik egon baitira.



Giro eder honek eragin du txapelketan ez zeuden hainbat talde berri sortzea: Labaien, Oitz, Ziga, Gartzain, etabar. Honek erakusten digu Herri Kirolak gure eskualdean daukan zaletasuna bai haur, gazte edo heldu mailan.

Aurtengoa esperimentu gisa egin da baina datorren urterako Nafarroa osora zabaltzeko ideia dago, baina ez gizonezko mailan bakarrik, emakumezkoen mailan ere bai.

Haurrentzat jadanik prestatzen ari da txapelketa berezi bat Nafarroan, Apirila aldera hasiko dena. Horrela bada, Herri Kirola egin nahi duen edozein pertsonak aukera ederra izanen du datorren urtean.

Markaberrienbila Herri Kirol Festibala

Aurreratuko dugu ere, Abenduaren 3an "San Francisco Javier" egunean Herri Kirol festibal ikusgarri bat antolatzeko asmoa dagoela (Anaitasuna edo Labriten).

Bertan Nafarroako kirolari hoberenak parte hartuko dute marka berri batzuz hausteko asmoarekin.

Hara nola, (Perurena, Larretxea, Mindegia, Mikel eta Esteban Saralegi, Sokatirako hoberenak —neska eta mutilak— proba konbinatuak eta hainbat espezialitate).

Nafarroako IV. Jolas-Kirolak 90-91 martxan

Nafarroako Gobernuak Kirol Federazioekin batera, haurrentzat hainbat eskeintza luzatzen ditu. Jokatuko diren kirol espezialitate gehienak txapelketa moduan egingen dira, lehenik eskualdean eta gero Nafarroa osoan zehar.

Oharra: Txapelketa hau antolatzea orain falta zaigun Kirol Koordinatzailearen lana da, baina arazoa oraindik ez da konpondu. Horregatik eskatuko genieke Udalei arazoa lehenbailehen konpontzea.

Izen emateak kirol bulegoetan egingen dira (Hitz eginga dago eskola, elkarte etabarrekin).

Apostuak

Mindegiak, ospitalean bukatu zuen Jaunarenari irabazi

Desafioa Doneztebeko pilotalekuan ia 2.000 lagun en aintzinean

Urriaren 14ak ikuskitun gogorra ekarri zien berekin Doneztebeko Pilotalekuan Xabier Mingia eta Antonio Jaunaren arteko apostua ikuster a hurbildu zirenei.

Toki itxian aritzea, zegoen jende multzo izugarria eta eguraldiaren berotasunari, apostuak berekin

dakarren sukarraren graduak gehitu zitzaizkion, desafioa ia-ia Jaunaren hil ala biziko estremotara eramatea posibilitatuz.

Zuzeneko jokoan 2.000.000 pza. sarreretan ia 3.000.000 eta azpijokoan... nork daki. Horrentzeko dirutzarekin, nor ez da gaixotuko?.



Bera

KULTUR BIDEETAN

URRIAREN 29tik AZAROAREN 2ra

• Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 5etara Herriko Etxeko Ganbaran, KIMA taldeak ikasleentzat aurkezturiko PITXU pertsonaiaren bidez marrazki bizi-dunen burutzapen prozesuaren erakusketa.




AZAROAREN 7an

• Arratsaldeko 7etan, Altzateko pilotalekuan KOBAlA taldearen txotxongilo emanaldia "SILIBISTROREN ALT XORRA" lanarekin.

Antolatzailea: **BERAKO UDALA**



AROZ BERRI



Siloa ateratzeko hoberenak

Tfnoa: 58 10 21 - IRURITA

Geldi - arriskua

Gizaki bakoitzak bere pisuaren arabera egunean edan dezaken alkohol kantitaterik haundiena.

Pisua	Egun batetan edan daitekeen alkohola
60 kilo	60 z. k. (litro erdia ardo edo hiru kopa koñaka edo anisa)
70 kilo	70 z. k. (7 basoerdi ardo edo hiru kopa eta erdi)
80 kilo	80 z. k. (8 basoerdi edo lau kopa)
90 kilo	90 z. k. (9 basoerdi - litro laurdena- edo lau kopa eta erdi)
100 kilo	100 z. k. (10 basoerdi edo bost kopa)

Kantitate hauek edatea ez da komenigarria: honek bakar- bakarrik adierazten du muga hau gaindituz gero, derrigorrez gure korputzari kalte eginen diola.



Nafarroako OSASUN MENTALEKO TALDEA



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 00 54
Doneztebe

DONEZTEBE: • Luxuzko pisua, sukalde ekipatua, 3 logela, egongela, 2 bainu, kalefakzioa, 18m²ko ganbara eta 16m²ko garajea.

BERA:

- 3 logela, sala, sukaldea despentsarekin, ekonomika eta bainua duen pisua.
- 14.000m²ko orube zelaia etxebizitza bakarreko 2 etxe, nekazaritzarako bi pabiloi eta landaketak egiteko posibilitatearekin. Irungo Aurrezki Kutxa - CLP-k egindako tasazioaren arabera 7.500.000 gaurko prezioa 5.500.000. Ura eta argia. Herritik 5 minututara.

ETXALAR: • Usategietarako bidean dagoen Batistenea Erretegia salgai dago.

Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi, Arantza, Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga, Narbarte, Oiategi, Mugairi eta Baztanen, 5.000.000 pezetatik gorako **pisuei** buruzko informazioa. Baita etxe, baserri, apartamentu, bordak terrenoekin eta eraikitzeko orubeak 800.000 Pezetatik gora.

Horoskopoa

Escorpion,... "eskorpioia"

BAZIREN Arcadiako urtokian munstro gizajale batzu, burnezko txoriak ziruditenak. Hainbertze zirenez, egatzen zirenean eguzkia iluntzen zuten. Herculesek, brontzezko ezkilekin izutu eta sakabanatu ondoren, geziz hil zituen. Hemen munstro gizajaleak problema eta oztipoen sinboloa dira, eta ez ditugu gaintutuko inkonszientetik-urto- kitik atera ondoren baizik. Orion da zeruko konstelazio- riorik dirdaritsuena eta badu ere eskorpioekin zerikusirik. Euskal mitologia- n "hiru erregeak" deitzen diren izarrak Ori- onen daude.

Udazken bete-betean

Arbolak hostoak galdu dituzte eta hormak hasi ere bai: natura hil dela dirudi. Baina lur gainean usteltzen diren hondakinak hurren- go urteko landareen elika-



gai izanen dira. Betiko adibideak dioen bezalaxe, haziak hil behar du landare

berri bat sor dadin.

Eskorpio arketipoa

Eskorpiok hil eta bir- sortze prozesu horiek or- dezkatzen ditu, naturan eta giza mailan: haurtzarotik gaztarora, ezkontzerakoan edo jubilatzerakoan nola- bait erran behar eta, per- tsonak psikologikoki hil behar du eta pentsamodu berri bat hartu. Urezko zei- nua da eskorpio eta babes- taile bezala agertu nahi du. Horregatik da hain posesi- boa eta jeloskorra. Eskor- piotarrak apasionatu fama ere badute, eta axaleko astrologiak dionez grinati sexualak omen dira. Bai- nan eskorpio edozein arlo- tan izan daiteke grinatia. Konstantea izatea, gauzen azkenera iristea birtute bat da. Bere intuizioak gauzak sakonki aztertze- ko ahalme- na ematen dio. Bere senti- menduen intentsitatearen- gatik bere bizi psikikoak irtenbide bat behar du, eta irtenbidea aunitzetan se- xualitatea izaten da.

FERMIN ALTZUGUREN



EZKONTZETARAKO KANPAINA
Iraila eta Urria
Lore eskakizunak egiten dituztenentzako
opari bat izanen da

Koronak, ezkontza lore sortak eta konbidatuei emateko oparitxoak
Aurrekontuak, konpromisorik gabe egiten dira
Bittiria karrika, Tfnoa: 63 74 94 - **LESAKA**

Drogeria MOLINERO



Paper pintatuak
Pinturak
Moketak
Drogeria

Tfnoa: 63 02 40
Eztegara 19
BERA



MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

•**Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410

•**Inguru honetan** etxe edo baserri bat erosiko nuke. 15.000.000 pzta daukat horretarako. Tfnoa: 305007. Lurdes.

•**Mediku batek**, Baztan, Bortziriak, Malerreka edo Ultzaman baserri edo etxe bat erosi edo alkitatuko luke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Diskrezio osoa. Tfnoa: 305007 Lurdes.


Lana

•**Neska euskaldun** batek lan eginen luke Donezteben edozein laneta eta goizez, igandetan ezik. Tfnoa: 450770

•**Gitarra klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630217

•**Andre bat eskeintzen da** edozein lanetarako. Deitu 610751 tfnora. 6,30etatik 8ak bitartean.

•**22 urteko neska** eskeintzen da edozein lane-



tarako. Deitu 637095 tfnora.

•**Elizondon**, neska bat eskeintzen da haurrak zaintzeko. Tfnoa: 580827. M. Anjeles-etaz galdetu.

•**Ordu batzuz lan egiteko**, Leitzan, andre bat eskeintzen da. Deitu 943-654143 Tfnoa. goizez.

Salerosketak

•**Akumulatzaile elektriko** bat saltzen dut, programadorearekin. Tfnoa: 630484.

•**Piano-akordeoi** elektroniko ttikia, 120 bajurekin saltzen dut. Egoera onean. Tfnoa: 637229.

•**Zerra bat**, ez zirkularra erosiko nuke. Juan Bautista Oteiza. 580996 Arraiotz.

•**Behi bat eta bere aretze gorria** saldu nahi ditut. Behia lau urtekoa da. Deitu Zigako 581023 tfnora.

•**Bigarren eskuko elektrogailuak** eta era guzietako mobleak erosiko nituzke. Etxetik hartuko nituzke eta eskutara ordaindu. Diskrezio osoa. Tfnoa: 450054

•**3 behi "suiza"**, onak, beren aretxeekin eta bertze bat pintua, esneduna eta 4 hilabetez ernari den miga bat salgai daude. Tfnoa: 630733

•**EBRO traktorea**, 30 CVkoa eta ia berria den belarra pikatzeko diskoa salgai. Tfnoa: 630733.

•**Egur eta ikatz sukaldea** salgai. Interesatuak deitu 637984 tfnora.

•**Erreemolke bat**, ehizako zakurrak ibiltzeko balio duena salgai. Marka homologatua. 635004

Denetarik

•**Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarentzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

•**Beran, negutegiak** jartzeko terrena behar dut. Metroko 700 pzta. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054

Harremanak

•**Pello**, barka iezadazu. Benetan MAITE ZAITUT. Pentsa ezazu ongi. KAPRIKORNIO.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE

HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA



	Narratzi mota	▼		Lapurdiko herria	▼	●	▼		Nauzu
	●			●		... egin. obeditu			
	▶			▼			▼		▼
	Gehiena	▶							
	Behar baino geroago	▶							
●	▼		Erne!	▶				Iparre-tarrak	▶
Tantaia		Tratularia	Ipar. Ardura					Oso egin	
▶		▼	▼	Zainetako likidoa	▶		▼		
				Hodeien ura					
Pilotakada mota	▶			▼				Azkenekoa	▶
Akitua								●	
▶						Arrantza aparailu	▶	▼	
						Lehen bokala			
Ote ar	▶				Sarrera	▶	▼		
Sigla imperialistak					Bizk. Zuzena				Eman ezazue
▶			Kasik	▶	▼	Momentu	▶		▼
			Lehen pertsona			Gipuzkoako herria			
Farre bizia	▶		▼					Dezi-metroa	▶
Errep.)Sanferminetako martxa								Röntgen	
▶				Jaurtiketa	▶		▼		
				Daukat					
Kontsonante bikoitza	▶		Ipar. Da galderetan	▶				Azkenekoa bitan	▶
Zeinuz			Kontsonante bikoitza					Egile atzizkia	
▶			▼						
						Bi gehi bi	▶	▼	
						Kontsonantea			
●	▶					+			Bokala

● Argentinako zein probintzian bizi dira ARKUPEAK ekarritako bisitariak

MARTIN IRAZOKI
BITTIRIA
31770 LESAKA
Franqueo Concertado 34/79

AMAIUR



sukalde eta bainu altzariak

Rosa Seminario 13 Tfnoa.: (948) 59 44 00

DONEZTEBE